

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### **73/2021 Mozioa, irailaren 22koa, Arabako Parke Teknologikoko haizearen tunela martxan jartzeari buruz**

Arabako Batzar Nagusiek, 2021eko irailaren 22an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

73/2021 Mozioa, irailaren 22koa, Arabako Parke Teknologikoko haizearen tunela martxan jartzeari buruz.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari zein Eusko Jaurlaritzari eskatzen diete ezen, Arabako Teknologia Parkea Sozietatearen bitartez, jarraitu dezatela Marie Curie eraikinean dagoen haizearen tunela martxan jartzeko merkataritza-jarduerak egiten.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari zein Eusko Jaurlaritzari eskatzen diete ezen, Arabako Teknologia Parkea Sozietatearen bitartez eta merkataritza-jarduerak hala justifikatzen badute, behar diren inbertsioak egin daitezela Marie Curie eraikinean dagoen haizearen tunelaren hardware eta softwarea zein instalazio osagarriak eguneratzeko, zertarako eta instalazioak atzera ere martxan jarri ahal izateko eta jarduera hasi ahal izateko, bai enpresei zuzendutakoa, bai, hala badagokio, irakaskuntza- eta ikerkuntza-jardueretara zuzendutakoa.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 22a

*Presidentea*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**